

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 128/2022 Foru Agindua, ekainaren 6koa, Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorraren ingurumen adierazpen estrategikoa ematen duena**

Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokor berriaren (aurrerantzean, HAPO) izapidetzeak ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura izan behar du, eta prozedura hori arautzen du Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak.

Prozedura horren esparruan, 2016ko maiatzaren 4an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua eman zuen, arestian aipatu dugun ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 5. artikulua xedatzen duenari jarraiki. Agiria eman baino lehen, kontsulta egin zitzaizen eraginpeko herri administrazioei, natura ikertzea eta zaintzea helburu duten elkarteei eta gainerako interesdunei, eta jasotako erantzunak ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko agirian jaso eta sartu ziren. Geroago, Iruña Okako Udalera helarazi zen agiria.

Iruña Okako Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko eskatu dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari. Ingurumen azterketa estrategikoaz (aurrerantzean, IAE) eta hirigintza dokumentazioaz gain, Iruña Oka udalerriko HAPOaren izapidetzearen administrazio espedienteari buruzko dokumentazio guztia jaso genuen, eta horien artean nabarmentzekoa da hauxe:

1. Jendaurrean jartzeko faseko alegazioen zerrenda.
2. Hasierako onespenerari aurkeztutako alegazioei buruz lantalde idazleak egindako txostena.
3. Eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta faseko txosten sektorialen zerrenda.

Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eskariz, honako ingurumen adierazpen estrategikoa eman du, 21/2013 Legearen 25. artikulua ezarritakoari men eginez, formari nahiz edukiari dagokienez.

Arestian aipatu dugun 21/2013 Legearen 26. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ingurumen adierazpen estrategikoan jasotzen diren zehaztapenak HAPOn idatzi beharko dira.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen adierazpen estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman zuen 2022ko maiatzaren 26an (15/302 espedientea).

#### **1. Hiri antolamenduko plan orokorraren helburuak. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako kokapen aukerak eta hartutako irtenbideak**

- 1.1. Hiri antolamendurako plan orokorraren helburuak.

Iruña Okako udalak IAEn emandako informazioa oinarri hartuz adierazten da HAPOaren bitartez hainbat gaitan eragin nahi dela, eta beraz, honako helburuak eta irizpide orokorrak ezarri dira:

- Eskualdeko burua:

Helburu nagusietako bat da Iruña Oka eskualdeko buru bihurtzeko biztanleria hazkundera eta ekipamendu garapen nahikoa garatzea. Hala, bigarren mailako udalerrietako bat izango da, eta horien xedea izango da Araba hiriburuan hain zentratuta ez dagoen lurraldea izatea, eta

beraz, biztanleria, jarduera ekonomikoak eta zerbitzuak orekatuagoak izatea. Horri lotuta, Araba Erdialdeko Lurralde plan partzialak (aurrerantzean, LPP) dio Iruña Oka eta Agurain “hiri espazio nagusi izateko gaitasuna duten hiriguneak direla” eta udalerrri horietan hazkunde handia sustatu behar dela Araba Erdialdeko hiri sistemaren barnean bigarren mailako hirigune bihurtu daitezkeen. Iruña Oka Gasteiztik hurbil egoteaz gain, etorkizun hurbilean azpiegitura berriak eraikiko dira bertan (besteak beste abiadura handiko trenaren trazadura berria), Langraiz Oka eta Gasteiz batzen dituen trenbide linea hobetuko da eta Jundizko estazio intermodala eraikiko da. Horri guztiari esker, Iruña Oka eta zehatzago, Langraiz Oka, bigarren mailako hirigune bihurtu eta buru izateko baldintzak ezarriko dira.

- Identitatea:

Iruña Okan mantendu diren etxebizitzaren egitura nekazaritza ekoizpenekoa da bere batzarren hirigune historikoan, eta aldi berean “Lorategi hiri” motako zabalgunekak eraiki dira azken urteetan indar handia hartu duten etxe atxikiek. Garrantzitsua da une honetan lehenetsia ematea udalerrria osatzen duten batzarrei identitatea ematen dieten elementuak mantentzeari eta horiek sustatzeari.

- Bizi kalitatea:

Iruña Oka txikia izan arren, aukera hau aprobetxatuz, plan berriak ahalbidetu beharko du nolabaiteko autonomia eskuratu ahal izateko baldintza errealak sortzea erabilera eta jarduera askorekin. Modu horretan, hirigune bat positiboki kualifikatzen duten prozesu guztiak sustatuko dira eta egoitza, industria eta zerbitzuen sarean kalitatezko udalerrri erreferentzia izateko aukerak izango ditu Iruña Okak, izan ere, potentzial handia du turismo aktibo eta kulturalaren arloan.

- Hiri egitura:

Iruña Okako hiri egiturako elementu nagusia Iruña Okako Langraiz Oka etorbidea da. Bertan hainbat zuzkidura ekipamendu daude, espazio komun mugakideak hantxe daude eta biztanleria pisua handia da. Bertan daude udalerriko oinarrizko zerbitzu gehienak, hedapen area berriak eta horien eraginpeko zonak barne.

Iruña Okako plan orokorra berrikusteko zenbait zuzendarau proposatu dira. Horien bitartez espazio publikoen eta ekipamenduen bilbea baloratu eta sustatuko da, eta nagusiki eraikinen koherentzia morfologikoa, espazio banaketaren ordez hiri lurzorua batzen duten erabilera ezartzea, eta azpiegiturak hobetu eta arrazionalizatzea bultzatuko da. Sentsibilizazio prozesu horrek eragin positiboa izango du bestelako jarduera sektoreetan, adibidez industrian eta zerbitzuetan.

- Gizarteratzea eta genero ikuspegia:

Garapen irizpideen artean proposatu da beharrezkoa dela hirigintza inklusiboa egitea, biztanle eredu bakar batean oinarrituta ez dagoena, baizik eta pertsona guztien beharrak betetzen dituen, gizon, emakume, ume eta adinekoenak. Nagusiki genero ikuspegia zeharka sartzean oinarrituta egongo da.

- Ingurumena kontserbatzea:

IAEn aitortzen da HAPOn hazkunde handia proposatu dela, eta beraz, ezinbestekoa da ingurumen irizpideak kontuan hartzea eta hiri inguruneen plangintzan eta dentsitatean erreparatzea. Halaber, lurzoru urbanizaezina antolatzea proposatu da Lurralde Antolamendurako Zuzentzauek proposatutako erabilera antolamendu irizpideei jarraikiz. Garapena jasangarritasun mugen barnean egongo da, ingurumena errespetatuko du eta Zadorra ibaia eta gizakiaren higadura ekintzen ondoriozko narriadura maila handiko zonak zainduko dira. Horrez gain, IAEn ingurumen irizpide batzuk proposatzen dira udalerriko hiri eta ekonomia jardueren garapenerako eta ingurune naturala babesteko.

## 1.2. Ingurumen ebaluazio estrategikoaren eremu geografikoa:

Iruña Oka udalerrria Arabako Lurralde Historikoan dago, Ibar Subatlantikoetako, Arabako Lautadako eta Trantsizioko Mendi eta Goi Haranetako eskualde naturalen artean, eta Badaia mendiek, Tuiokoe eta Mendebaldeko Gasteizko Mendiak inguratzen dute. Hauek ditu mugakide: iparraldean Kuartango udalerrria, ipar-ekialdean Gasteiz udalerrria, mendebaldean Erriberagoitia udalerrria eta hegoaldean Trebiñuko Konderrria. Altitudeko gehieneko kotak eta aldapa handienak udalerrri inguruko mendilerroek definitzen dituzte: ipar-ekialdean Badaia mendilerroa dago 1.012 m-ko altuerarekin, eta hegoaldean Mendebaldeko Arabako Mendiak eta Tuio mendilerroa.

Gutxieneko altitudea 484 m-koa da eta Langraiz Okako herrigunean dago, udalerrria zeharkatzen duen Zadorra ibaiaren haranaren sakonunean. Ibaiak ibilbide bihurtuak egiten du ipar-mendebaldetik hegoaldera. Herrigune nagusiak hauek dira: Langraiz Oka (biztanle gehien bertan bizi dira), Mandaita, Olabarra, Tresponde eta Billoda. Guztiak ere malda eta altitude txikiak dituzten lekuetan daude eta eragin antropiko handiena duten inguruak dira. Udalerrrian guztira 3.468 biztanle daude (INE 2021).

## 1.3. HAPOn aztertutako aukerak eta ezarritako irtenbideak:

### 1.3.1. Bizitegi garapenerako proposamenak:

Bi bizitegi garapen mota proposatu dira: hiri finkatzean oinarritutako garapenak eta hedapena:



Finkatutako areak: birmoldaketa areak.

Aurrerapen agirian Langraizko herrigunearentzako proposatutako bi irtenbideetatik bakarra egin da. Horren arabera, zenbait ekipamendu ezarriko dira eta egoitza parke berriarekin 300-350 etxebizitza berri sortuko lirateke, eta hala, erakarpen zona bat eratuko litzateke. Aurrerapen agiriarekin alderatuta egokitzapen batzuk ezarri dira, izan ere, aurrerapen agiria idatzi zenetik gaur egunera arte hainbat esku-hartze eta aldaketa egin dira. Horietako batzuk aurrerapen agirian bertan proposatutakoak izan ziren, adibidez Langraiz etorbidearen ondoan plaza eraikitzea, osasun zentro berriarentzat lurzati bat esleitzea eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoaren alboan hezkuntza ekipamendu berria eraikitzea. Azkenik, Langraiz erdigunerako 154 etxebizitza aurreikusitako antolatutako xehatuko eremuetako fitxen arabera (aurrerantzean, AXE).

Hedapen areak:

IAEn adierazitakoaren arabera, aurrerapenean hiru aukera proposatu ziren eta guztietan garapena nagusiki ekialdera egiten zen, Langraiz etorbidea finkatuz eta jada eraikita dagoen ikastetxearen zona antolatuz. Ezberdintasuna zen B eta C aukeretan Langraiz etorbidearen hegoaldeko zatia ere antolatzen zela, eta ondorioz, progresiboki etxebizitza kopurua handitzen zuten:



<p>B aukera</p> 	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 1.300 etxebizitza.</li> <li>— Langraiz etorbidea finkatzea.</li> <li>— Ikastetxeko zona antolatzea eta trantsizioa egungo bilbearekin egitea.</li> <li>— Ikastetxeko hegoaldeko zona antolatzea.</li> </ul>
<p>C aukera</p> 	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 1.500 etxebizitza.</li> <li>— Langraiz etorbidea finkatzea.</li> <li>— Ikastetxeko zona antolatzea eta trantsizioa egungo bilbearekin egitea.</li> <li>— Ikastetxeko hegoaldeko zona antolatzea.</li> <li>— Dentsitate handiagoa.</li> </ul>

Aurrerapenean B aukera hautatu zen arren, azkenean, A aukera hautatu da Lurralde Antolamenduko Zuzentarauen (aurrerantzean, LAZ) bizitegi kuantifikazio metodoaren bidez lortutako gehieneko bizitegi gaitasun onargarria ez gainditzeko. Hala ere, nahiz eta IAEn aukeren analisisian adierazi HAPOn A aukera hautatu dela, egiaz, Langraiz Okako ekialdeko hedapen zonan ez dira 700-800 etxebizitza proposatu, zehazki 444 etxebizitza proposatu dira antolamendu xehatuko eremuen fitxei erreparatu. Horrez gain, HAPOn jasota dago bizitegi hedapeneko zona bat ezartzea Langraiz iparraldean. "EITorco" izena du eta egungo bilbearekiko paraleloan definitu da. Hedapen zona horretarako 79 etxebizitza aurreikusi dira.

Laburbilduz, Langraiz Okan HAPOk guztira 677 etxebizitza jaso ditu (herriguneko hazkunde eremuetan, ekialdeko hedapenean eta "EITorcon"). Halaber, Mandaitan 3 etxebizitza, Olabarrin 24, Billodan 23 eta Tresponden 14 aurreikusi dira.

### 1.3.2. Jarduera ekonomikoaren garapen proposamenak:


Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, aurrerapenaren proposamen nagusia mantendu da, baina, kontuan hartu da AHTren trazadura berriak zuzeneko eragina duela aurrerapen agirian "Los Llanos" hegoaldean proposatzen duen industria lurzoruan, izan ere, iparraldetik A-1 errepideak eta hegoaldean AHTren trazadurak mugatzen zuen. Antolamendu berriari aldatu egin da, eta beraz, lurzoru hori mugatu da baldintzatzaile berrietara egokitzeko. Hala, industria hazkundera AHTren ibilbidea (informazio azterlanaren mailan aurreikusitakoa) egungo A-1 errepidearekin markatzen duen falka formako mugei egokitzen zaie. Halaber, Langraiz Okako mendebaldeko "Explosivos" zonan egun dagoen industria lurzoruaren indarreko antolamendua mantendu da, eta Subillabide eta Jundiz industrialdeak batuko dituen Subillabide II industrialdea handitzea espero da. (Ikus epigrafe honen ondorengo "HAPOn antolamendu xehatuko areen mugaketa" planoak).

Aire zabaleko ustiapenei dagokienez eta "Nafarroa txikia" harrobiaz ari garela, aurrerapenean zenbait handitze irtenbide jaso ziren, eta HAPOn egungo fasean IAEn hauxe adierazten da aire zabaleko ustiapenen inguruan: "Harrobien kokapena eta hedapena udalaz gaindiko baimenen menpekota da. Beraz, HAPOn azken proiektua sartu beharko da antolamenduan plan berezi baten bitartez, eta azken horretan txertatu beharko da sektore araudiari atxikitako bere erregulazioa. Ustiapen handitzeak Olabarriko eta Langraiz Okako herriguneetatik hurbil egungo lirakeke, eta horregatik, plan berezian segurtasuneko gutxieneko distantzia bat ezarri beharko da herri horietaraino. Gainera, ezarpenak ingurune naturaletan eta bizitegi zonetan ahalik eta kalte gutxien sortzeko baldintzak ezarri beharko dira.

Beraz, HAPOn ez dira definitu “Nafarroa txikia” harrobiko handitzeak eta, hala badagokio, plan berezi bat izapidetu beharko da horretarako.


1.3.3. HAPOn antolamendu xehatuko areak mugatzea:

Hurrengo planoan HAPOn proposatutako lurzoru sailkapenak jaso dira (finkatutako hiri lurzoru, finkatu gabeko hiri lurzoru, sektorizatutako lurzoru urbanizagarria, udalaz gaindiko antolamendu eremuak eta lurzoru urbanizaezina):



1.3.4. HAPOn proposatutako zonifikazioa:

Hauze da HAPOn proposatutako zonifikazioa (bizitegia, industrial, hirugarren mailakoa eta hainbat sistema orokor):



### 1.3.5. Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa:

HAPOn zonifikazio hau proposatu da lurzoru urbanizaezinerako:

- J10. Balio naturaleko babes bereziko landa zona.
- J11. Balio historiko eta kultureko babes bereziko landa zona.
- J12. Larre menditarren babes bereziko landa zona.
- J13. Baso balioko babes bereziko landa zona.
- J14. Nekazaritza eta abeltzaintza balio estrategiko handiagatik babes berezia duen landa zona.
- J15. Azaleko uren babes bereziko landa zona.
- J20. Natura intereseko landa zona babestua.
- J21. Historia eta kultura intereseko landa zona babestua.
- J22. Larre menditarreko intereseko landa zona babestua.
- J23. Mendi eta baso intereseko landa zona babestua.
- J24. Landa paisaia gisa babestutako nekazaritza eta abeltzaintza intereseko landa zona.
- J25. Ingurumena hobetzea.

### 1.3.6. Gaineratutako baldintzak:

HAPOk hauek proposatzen ditu:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Uholde eremuak.
- Onura publikoko mendiak.
- Paisaia bereziak eta bikainak.
- Eremu higagarriak.
- Linea elektrikoaren aurrean hegazti fauna babesteko zona.
- Arkeologia zonak eta presuntziokoak.
- Katalogatutako ondasunak.
- Lurzoru kutsatuak.
- Errepideetako zarata aztarna.
- Aireportuko zarata aztarna.
- Aeronautikako zortasuna.
- Trenbide komunikazioen babesa.
- Errepide komunikazioen babesa.
- Parke eolikoaren eraginak.

## 2. Ebaluazio prozesuaren analisia

### 2.1. Ingurumen azterketa estrategikoaren balorazioa: kalitatea eta ondorioak.

Ingurumen Azterketa Estrategikoaren edukia aztertuta, pentsatzen dugu, orokorrean eta egituraren arloan, agiriak kalitate egokia duela txosten honen xede den HAPOn Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa gauzatzeko. Eraginpeko eremuaren ingurumen analisi, diagnostiko eta balorazio berbera egin da, baita eraginen identifikazioa eta balorazioa eta prebentzio, zuzenketa

eta konpentsazio neurrien proposamena ere, eta planaren ondorioak berrikusteko ingurumen zaintza programa bat jasotzen da. Ondorengo ataletan, arreta bereziz eta banaka aztertu behar diren HAPOn alderdiak jorratuko dira (zenbait kasutan, berrikusi edo ezetsi beharko liriteke).

## 2.2. Irismeneko dokumentuan ezarritako eskakizunak:

Irismen agiria 2016ko maiatzaren 4an eman zenetik, HAPOn izapidetzeak aurrera egin du, eta sustatzaileak hartutako erabakien eta jendaurrean jartzeko prozesuaren ondorioz aldaketa garrantzitsuak ezarri dituzten hainbat aurretiazko agiri egin dira.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek emandako IAEren irismen agirian eremu batzuk definitu ziren, non, ingurumen ondorioak direla eta, IAEk ingurumen azterketa zehatza egin beharko lukeen eta hirigintza agiriak xedatutako jarduketak doiago zehaztu beharko litzukeen. Ondoren, irismeneko dokumentuaren eta hirigintza dokumentuaren arteko ezberdintasunak azalduko dira:

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIARI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HIRIGINTZA ARAUETAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
<b>Lurzoru urbanizaezina</b>	
Irismeneko dokumentua: Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioan gehiegizko definizio falta zegoela egiaztatzen zen eta akats handiak adierazi ziren.	Hirigintza dokumentua: Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioari buruz aurkeztu ziren planoek behar bezala zuzendu zituzten irismeneko dokumentuan identifikatu ziren akatsak.
Irismeneko dokumentua: Lurzoru urbanizaezinaren erregulazioa eta antolamendua ez zirela definitu jakinarazten zen. Ez zen gehitu onartutako edo debekatutako erabilera eta jardueren araudirik.	Hirigintza dokumentua: "Hirigintza araudia" III. LIBURUKIKO 1.6.2.1 artikuluan modu egokian jasota daude sailkapen orokorrak babes bereziko J.1 landa zonetan eta J.2 babestutako zonetan baimendutako eraikuntza erabilerak eta jarduerak.
Irismeneko dokumentua: Udalerriko natura balio nagusiak dagozkien lurzoru urbanizaezinaren kategorietan sartzeko zuzentarau batzuk jasotzen ziren. Arreta berezia ematen zitzaion "Natura interesarengatik babes berezikoak diren areei" eta "Baso areei".	Hirigintza dokumentua: Orokorrean egokia da planoetan egin zen lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa, baina, badaude zuzendu behar diren bi kontu (tokiko basoen kategorizazioa eta balio ekologiko handiko elementua eta baso birpopulazteak dituzten zonak), irismeneko dokumentuan ezarritako irizirik jarraituz. Hala, beste kontu batzuen artean, HAPOn arabera J13 zonetan "Baso balioarengatik babes berezia dutenak" eta garrigak eta erkameziak sartzen dira eta baimenduta dago meatzaritza eta erauzketa jarduerak, eta alderdi hori zuzendu egin behar da. Gai hori hurrengo apartatuetan landu da.
Irismeneko dokumentua: Sustatzaileak aurkeztu zuen dokumentazioan jasota zegoen hainbat kategoria edo kalifikazioetan baimenduta dauden erabilerak zuzen zehazteko beharrezkoak diren gaineratutako baldintzak falta zirela. Zenbait babestutako espazio naturalei, katalogatutako paisaiei, igarobide ekologikoei eta abarrei buruzko baldintzatzaileak dira.	Hirigintza dokumentua: Planoetan gaineratutako baldintza batzuk jaso dira, baina ez da idatzi "Igarobide ekologikoei" buruzko gaineratutako baldintzarik. "Paisaia berezi eta bikainen" gaineratutako baldintzen kasuan, hurrengo apartatuetan analizatuko diren zenbait akats ikusi dira.
Irismeneko dokumentua: Bertan azaltzen zen Iruña Oka udalerritik "Done Jakue bidea", "GR-25 Arabako Lautadako Bira mendi magalean" eta "GR-282 Artzaintza bidea" igarotzen direla, eta ibilbide horiek Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide berdeen 1/2012 Foru Arauan ezarritako araubideari eta antolamenduari atxikita daudela. Ezartzen da ibilbide berdeko tarte horietan kategoria edo sistema orokor espezifiko bat ezarri beharko litzatekeela ("Komunikazio sistema orokorra- Ibilbide berdea-" izan liteke). Halaber, eraikuntza, urbanizazio erabileren eta ibilbide horien gaineko eragin nabarmenak ekartzen dituen beste edozein erabileraren aurrean prebentzioko eta babeseko beharrezko baldintzak eta aginduak ezarri beharko dira sistema orokorrari buruzko araudian.	Hirigintza dokumentua: Nahiz eta planoetan oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide batzuk sistema orokor gisa jaso diren (E2) eta horiek grafikoki adieraztea zaila den arren trazaduraren tamainarengatik, beharrezkoa da adieraztea HAPOn irismeneko dokumentua eman zenetik Arabako lurralde historikoko ibilbide berdeen eta bizikleta bideen lurralde plan sektorialak aurrera egin duela, eta gaur egun behin betiko onespen fasean dagoela. Beraz, bertako xedapenetara egokitu beharko dira bizikleta eta oinezkoen bideen arloan eta HAPOn planoetan grafikoki adierazi beharko dira aipatutako LPSk jasotzen dituen bizikleta bidea eta ibilbide berdeak. Alderdi hori txostenaren hurrengo faseetan jorratu da.
<b>Hirigintza garapenak</b>	
Irismeneko dokumentua: HAPOn aurrerapen dokumentuan Langraiz Okan gehiegizko bizitegi hazkundeak proposatzen ziren, handiegia zirelako eta lurraldean eta ingurumenean eragin nabarmenak sortuko zituztelako.	Hirigintza dokumentua: HAPOn nabarmenki gutxitu da Langraiz Okako hirigintza hazkundeak dagokien aurrerapenean jaso zen hasirako estimazioa, izan ere, gaur egun udalerririk horrenkat 677 etxebizitza aurreikusitako dira. Hirigintza garapen berrientzako proposatutako eremuak gutxitu dira, eta azken aurreikuspenak ingurumen inpaktu txikiagoa du.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIARI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HIRIGINTZA ARAUETAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
<b>Hiri lurzoru (Langraiz Oka)</b>	
Irismeneko dokumentua: Langraiz Oka udalerriko herrigunean aurreikusitako jarduketan ingurumen efektu posible garrantzitsuen ebaluazio sakonagoa egiteko eskatzen zen, horretarako ekipamendu berriak antolatuz eta eraikiz.	IAEren 5.2.2 "Proposatutako garapen eremuen ebaluazio berezia" apartatuan banaka aztertu dira HAPOko garapen eremu bakoitzean sortuko liratekeen ingurumen ondorioak, Langraiz Okako herrigunerako proposatutakoak barne.
<b>Bizitegirako lurzoru urbanizagarria</b>	
Irismeneko dokumentua: Udalerriko etxebizitza kopurua handitzeko beharra justifikatzeko eskatzen zen. Jakinarazten zen aurreikusten diren ingurumen ondorioetarako IAEk sakondu egin behar zuela eta arreta berezia jarri behar zela landaredia naturalean sortu litezkeen kalteei, adibidez 6220* "Thero-Brachypodietearen urteko eta gramineoen zona azpiestepikoak" Europar Batasunaren Intereseko Habitategian eta tamaina handiko arteen zuhaitz unadetan ( <i>Quercus ilex</i> , <i>Rotundifolia</i> azpiespeziea) sortutako kalte larriak. Baloratu zen lursail horiek berriz ere sailkatzean inpaktu handiak sortuko liratekeela nekazaritza lurzoruak okupatzeagatik eta intereseko landaredia naturalez estalitate eremuak baita ere; horietan egiaztatu da zuhaitz landaredia klimazikorako bilakaera gertatzen ari dela. Adierazten zen ingurumen inpaktu handia ez dela justifikatzen biztanleriaren hazkunderaren aurreikuspen errealean oinarrituta, eta horregatik, proposatu zen herriguneko eremuetako bizitegi hazkundera oinarri duten aukerak aztertu beharko liratekeela. Billodan, Tresponden eta Olabarrin urbanizagarri gisa proposatutako lurzorueta sortuko litzatekeen inpaktua jakinarazten zen eta eskatzen zen kontuan hartzeko ingurumen eta paisaiako babes eta integrazio neurriak.	Hirigintza dokumentua: HAPOn nabarmenki gutxitu da Langraiz Okako hirigintza hazkundera dagokien aurrerapenean jaso zen hasirako estimazioa, izan ere, gaur egun udalerririk horretzat 677 etxebizitza aurreikusi dira. Langraizko ekialdean aurreikusitako bizitegi hazkundera gutxitu zen, izan ere, alor horretan albo batera utzi da Langraiz etorbideko hegoaldean hazkundera proiektatzea. Horrela, saihestu egingo dira katalogatutako habitategian eta mendixka zonetan sortu litezkeen eraginak. IAEren 5.2.2 apartatuan banaka aztertu dira HAPOko garapen eremu bakoitzean sortuko liratekeen ingurumen ondorioak, Langraiz Okako ekialdeko zonarako proposatutakoak barne. Kontuan hartuta Langraizko ekialdeko zabalgunean aurreikusitako hazkunderaren murrizketa, zehazki Langraiz etorbideko hegoaldean, proiektatutako etxebizitza kopuruen gutxitzea (horrek esan nahi du ingurumenaren aldetik sentikorak diren zona gutxiago okupatuko direla) eta IAE jasotzen diren ingurumen integrazio neurriak, egokituz jotzen da horri buruz HAPOn egiten den plangintza. IAE eta HAPOren hirigintza dokumentuan ez dira aukera berriak berraztertu aurrerapenean Billodan aurreikusitako hazkunderako, baina, egia da IAE jasota dauden ingurumen integrazio neurrietan (HAPOk kontuan hartu beharko dituenak) tokiko landaredia babesteko neurriak ezartzen direla, eta beste batzuen artean hauxe dago jasota: "ahal den heinean, hiri bilbearen barne geratzen diren tokiko zuhaitz masak edo habitatak proposatutako antolamenduan sartuko dira eta espazio libreak izango dira". Alderdi hori bereziki tratatuko da txostenaren hurrengo apartatuetan.
<b>Lurzoru urbanizagarri industriala (N-1 autobidearen hegoaldean proposatutako industria lurzoru)</b>	
Irismeneko dokumentua: Zalantzan jartzen zen A-1 autobidearen hegoaldean industriale bat eraikitzea, izan ere, nekazaritza eta baso izaera handiko eremu bat fisikoki eta biologikoki eraldatuko luke eta eremu horrek ekologia eta paisaia ahultasuna du. Lurralde antolamenduan izango lukeen inpaktua azpimarratzen zen, izan ere, industriale horrekin N-1 autobideko eta N-102 errepideko (Gasteizera hegoaldeko sartzeko errepidea) iparraldeko eta ipar-mendebaldeko industrialeak barne hartzen dituen inguru horren lurralde eredia hausteko arriskua zegoen. Hori dela-eta baliteke etorkizuneko interes natural eta paisajistikoko handia duen zona batean, autobidearen hegoaldean, garapen berriak proiektatzea. Gainera, aurkeztutako HAPO agirian industriale berri baten justifikazioa falta zela egiaztatu zen.	2016an irismeneko dokumentua eman zenetik egiaztatu zen udalerriko industrialeak okupatzen eta betetzen zirela. Gainera, zona horretako AHTren trazadura definitu da informazio azterlan mailan eta aldeko ingurumen inpaktuaren adierazpena du. Edonola ere, behin betiko eraikuntza proiektua onesteke dago. HAPOn azaltzen da "Álava Agencia de Desarrollo SA" enpresak industriale hori garatu nahi duela. Oso garrantzitsuak diren errepide azpiegituren espazio interstizialean proposatu da, eta hori guztia Arabako Lautadako industriale horretako egungo beharretan oinarrituta. Proposatutako industria arearen hasierako antolamenduan eremua zeharkatzen duten erreka toetan kentze handiak egingo direla adierazten da URA, Uraren euskal agentziak IAEren prozeduraren kontsulta fasearen txostenaren ezarritako oharrekin bat etorritik.



INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISIMEN AGIRIARI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HIRIGINTZA ARAUETAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
<b>Lurzoru urbanizagarri industriala (Subillabideko ekialdean proposatutako industria lurzorua)</b>	
<p>Irismeneko dokumentua: Lurralde zatikatze posibleari buruz ohartarazten zen ingurumen sentikortasun eta ahultasuneko eremu batean. Argudiatu zen saihestu egin behar dela industrialdeak lotzearen ondoriozko eremu urbanizatu jarraitua sortzea. Jundizko mendixka ez da isolatu eta industrialdeen eta A-1 autobidearen artean guztiz sartu behar Zadorra ibaiko KBerekin konektatzea oztopatuz eta bereziki Gasteizko mendietako eta Tuio eta Badaia mendilerroetako inguru naturalen arteko konektibitate ekologikoa eragotziz.</p> <p>Nabarmetzen da Jundizko mendixka muino naturala dela eta Mendebaldeko lautadaren ingurutik 100 metro inguruko altuera duela, eta eremu garrantzitsua dela inguruko baso espazioen eta Zadorra ibaiaren espazio natural babestuen arteko prozesu ekologikoak eta konektibitatea mantentzeko. Gainera, berezko balio ekologiko handiak ditu. Horrez gain, azaltzen zen mendixkak garrantzia historikoa duela eta azkenik aipatzen zen industrialde hori zuinkatu egin behar dela aurre egin ezin zaien inpakturik ez sortzeko, eta saihestu egin behar dela eremu horretan industrialde jarraituak egotea eta Jundizko mendixka isolatzea.</p>	<p>Subillabide II industrialdearen xedea da egungo Subillabide industrialdea eta Jundizkoa batzea (paraleloan akoplatuta dagoena trenbide plataforma intermodalean). Azalera 53 hektareakoa izango litzateke, eta horietatik 29,42 hektarea industria erabilerrako lurzatiarako izango lirateke. IAEn ez da aukeren analisi egokirik egin, eta Subillabide Ekialdekoa egikaritzea justifikatzen duen hurbileko industrialdeetako lurzati industrial hutsen analisisirik ez da gauzatu ezta ere. Baliteke lurralde zatikatze oso handia gertatzea, izan ere, Jundizko mendixka isolatu eta industrialdeen eta A-1 autobidearen artean guztiz sartu ahalko litzateke, Zadorra ibaiko KBerekin konektatzea oztopatuz eta bereziki Gasteizko mendietako eta Tuio eta Badaia mendilerroetako inguru naturalen arteko konektibitate ekologikoa eragotziz.</p> <p>Horrekin lotuta, "sine qua non" betekizuna da Jundizko mendixkaren, Zadorra ibaiaren eta Gasteizko Mendien eta Tuio eta Badaia mendilerroen arteko konektibitate ekologikoa lortzea. Horretarako, deklarazio honen hurrengo apartatueta ingurumen integratzioko beharrezko neurriak proposatu dira.</p>
<b>Finkatutako hiri lurzoru industriala ("Explosivos" sektorea)</b>	
<p>(Irismen dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Explosivos" sektorea Olabarri herriaren aurrean eta A-2622 errepidearen eta Tuio mendilerroaren iparraldeko aldearen artean kokatuta dago, eta aurrerapen dokumentuan bi aukera daude jasota. Alde batetik, tiro eremu bat sortzea eta lurzoruaren kalifikazioa komunitate ekipamenduen sistema orokorrera aldatzea. Beste alde batetik, hiri lurzoru gisa desklasifikatzea eta jarduera industrialde berri batera eramatea. Aukera bi horiek IAEn jorratu beharko dira eta ingurumena kontuan hartuz egokiena dena baloratu beharko da. Une honetan eta eskuragarri dagoen informazioarekin, ez da horri buruzko balorazio zehatzik egin behar".</p>	<p>IAEren 5.2.2 apartatuan "Explosivos" sektorearen analisi indibidualizatua egin zen eta bertan jasota dago lursailen jabea den enpresak 2014ko apirilean akordio bat sinatu zuela udalarekin eta bere lurzatiari atxikitako lursailen hirigintza antolamenduko proposamen bat aurkeztu zuela. Hala, proposatu zuten egungo hiri lurzoru industrialeko mugen barnean industria ekoizpeneko area handitzea. Akordioan erabaki zuten lurzorua lagako zutela sistema orokorren sarearentzako ekipamendua lortzeko, eta 113.550 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatuko zuela. Ekipamendu horrentzako pentsatu den erabilera aisialdikoa da, izan ere, bertan plater tiroko eremu bat jartzea aurreikusitako da. Toki sistemen sareari bideratutako lagapenak aipatutako sistema orokorraren eta ibilgailuen errepideetako sarbideen ondoan kokatuko dira. Geratuko den azaleraren erdia zona berdeen espazio libreerako izango da, eta beste erdia aparkaleku publikoerako. Edonola ere, industria lurzorua ez da handituko indarrean dagoen hirigintza plangintzarekin alderatuta.</p>

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIARIARRI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HIRIGINTZA ARAUETAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
<b>Udalerriko bi harrobiatarako proposatutako jarduketak</b>	
<p>(Irismen dokumentuaren hitzez hitzeko kopia):  “Nafarroa txikia” harrobia  “Nafarroa txikia” harrobiarentzat proposatu den jarduketan gutxi gorabehera “Lizarrako garriga motako” artadien 165.000 m2 kenduko lirateke (katalogatutako Europar Batasunaren Intereseko Habitata: 9340 <i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> basoak), eta saihestu behar den ingurumen inpaktu handia sortuko litzateke. Horrekin lotuta, IAEn kontu hori oso zehatz landu beharko da, eta eraginak jaso litzakeen baso azaleraren egungo kontserbazio egoera eta bere funtzionalitate ekologikoa modu egokian baloratu beharko dira. Halaber, beharrezkoa da IAEn ezarri beharreko neurri prebentiboak, zuzentzaileak eta kontserbazioak definitzea. (9 ohar egin dira harrobia handitzeko irizpide ekologikoein, inpaktuen balorazioarekin, eraginpeko atalaseekin, paisaiaren konektibitate ekologikoa kontuan hartzearekin, bizitegi zonen hurbileko eremuetako segurtasun irizpideekin, Subijanakona zona hezeetan eta hirugarren mailako akuiferoan sortuko litzatekeen eraginarekin, neurri zuzentzaileekin eta ingurumen zaintzako programarekin lotuta).  “Azkorrigana” harrobia  “Azkorrigana” harrobiarekin lotuta ez da handiterik aurreikusitua, eta beraz, ez da aukerarik aztertu sustatzaileak emandako informazioaren arabera. Hala ere, HAPOn aurrerapen agiriaren 46. orriko “lurralde ereduaren” planoaren arabera, gaur egun ustiatu gabe dagoen zona bat jaso da. “Azkorrigana” harrobiko ustiapenaren aurrean dago eta lurzoru urbanizaezinean katalogatuta dago “Material harritsuen erauzketa” bezala. Horri lotuta, beharrezkoa da hirigintza agiriak eta IAEn kontu hori argitzea. “Azkorrigana” harrobiarentzako handiterik proposatzen ez bada, aurkeztutako dokumentazioaren analitik ondorioztatuta daiteke beharrezkoa dela ustiapena Ingurumeneko sailburuordearen 2000ko abenduaren 19ko ebazpenean jasotako eremura doitzea. Ebazpen horren bitartez, Iruña Oka udal mugarteko Tresponden ECALSA SA enpresak sustatutako “Azkorrigana” harrobia ustiatzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egin zen”.</p>	<p>Aire zabaleko ustiapenei dagokienez eta “Nafarroa txikia” harrobiaren ari garela, aurrerapenean zenbait irtenbide jaso ziren, eta HAPOn egungo fasean, IAEn hauxe adierazten da udalerriko aire zabaleko ustiapenen inguruan: “Harrobiaren kokapena eta hedapena udalaz gaindiko baimenen menpekoa da. Beraz, HAPOn azken proiektua sartu beharko da antolamenduan plan berezi baten bitartez, eta azken horretan txertatu beharko da sektore araudiari atxikitako bere erregulazioa. Ustiapen handitzeak Olabarriko eta Langraizko herriguneetatik hurbil egongo lirateke, eta horregatik, plan berezian segurtasuneko gutxieneko distantzia bat ezarri beharko da herri horietaraino. Gainera, ezarpenak ingurune naturaletan eta bizitegi zonetan ahalik eta kalte gutxien sortzeko baldintzak ezarri beharko dira. Alderdi hori bereziki tratatuko da txostenaren hurrengo faseetan.</p>

### 2.3. Jendaurrean jartzeko prozesuaren eta kontsulten emaitzak.

Lehenik eta behin, eta IAEn irismeneko dokumentua emateko egin zen kontsulta faseari dagokionez, agiri horretan laburbildu eta jaso ziren Iruña Okako udalari erakunde hauek egin dako alegazioen kopia osoak: Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, IHOBE-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua, Arabako Foru Aldundiko Uren Zerbitzua, Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko Arkitektonikoaren Zerbitzua eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.

Bigarrenik, norbanakoek eta erakundeek egindako alegazioak jasotzen diren faseari dagokionez eta IAE eta HAPOn hasierako onespren dokumentua jendaurrean jarri eta gero, guztira 58 alegazio jaso ziren. Gehienak partikularrek aurkeztu zituzten, bateren bat merkataritza sozietate batek eta beste batzuk Administrazio Batzarrak egin zituen. Hala, idazleen lantaldeak 2021eko maiatzaren 5ean zigilatutako txostenaren bitartez, erantzuteko HAPOn hasierako onesprenari aurkeztutako alegazioen txosten bat eta ebazpen proposamena egin zituen. Alegazio asko jaso ziren eta asko hirigintza parametroetan egiteko aldaketa txikien proposamenak ziren, beste batzuk hainbat eremuetako erabilerak aldatzeko, lurzatiak berriz ere sailkatzeko edo akatsak zuzentzeko ere bai, eta ikusirik edozein kasutan gehienak udalak konpondu dituela, ingurumen ondorioetarako garrantzitsuak izan daitezkeenak laburbildu dira ondoren:

– 3. Industrialdeko 127. lurzatiko jabeak (AOP-I3 sektoreko eremuaren eraginpekoa) eskatu zuen sektoretik guztiz salbuesteko horrela egungo nekazaritza-abeltzaintza erabilera mantendu dadin, eta Jundizko mendixkaren eta Badaia mendilerroaren konektibitate ekologikoa betetzeko helburua beteko litzateke horrela. Proposamen hori onesten ez bada, eskatu zuen bere lurzati osoa industria sektorearen barnean sartzeko. 52.363 m<sup>2</sup> dituen lurzatia AOP-I3 eremuaren (industria sektorea) barnean dago 31.554 m<sup>2</sup>-ko azaleran. Udalak azkenean erabaki zuen lurzati guztia AOP-I3 industria sektorean sartzea.

Ingurumen organoaren oharrak: Txosten honetako hurrengo apartatuetan adierazi den bezala, HAPOn Subillabide II industrialdeko antolamenduan jasotako zona berde nagusian ingurumen eraberritzeko eta birlandaketako lanak egitea eskatuko da (zona berde horretan zenbait lurzati daude eta horien artean dago 3. industrialdeko 127. lurzatia). Lan horiek igarobide ekologiko bat sortzeko izango dira, horrela fauna espezieak sakabanatu eta mugitzea erraztuz.

– Norbanako batek bere alegazioan HAPOr buruzko ohar batzuk azaldu zituen. Laburbilduz, bere ustez hiri inguruetan biodibertsitatea defendatzea falta da eta askotariko erasoen zerrenda aurkeztu zuen (besteak beste harrizko fatxadetako ertzak zementuz betetzea ornodunentzako babeslekuak kenduz, barruko ibaietan hodiak jartzea ibaiertzeko landaredia kenduz, ibai eta urmaeletan espezie exotiko inbaditzaileak sartzea, etxeko fauna basatia ez kontrolatzea, alde zurreko azterketarik egin gabe hiri parkeetako zuhaitz osasuntsuak kentzea, beharrezkoak ez diren inausketak egitea eta hirigunean kokatutako baratzeak kentzea) Udalak erabaki zuen ez zuela horri buruzko zuzenketarik sartuko HAPOn.

Ingurumen organoaren oharrak: Egokitzen jo da udalak norbanako horrek IAEren ingurumen integratzioko neurri multzoan egindako ekarpen guztiak edo batzuk sartzea baloratzea (6. kapitulua "Ingurumeneko ondorio negatiboak prebenitu, gutxitu eta konpentsatzeko neurrien proposamena"). Txostenaren hurrengo apartatuetan adierazi den bezala, HAPO agirian jaso beharko dira.

– 2. Industrialdeko 1095. lurzatiko jabeak eskatu zuen lurzati horren kategoria aldatzeko eta "J25 ingurumen hobekuntza" eta "J23 Mendi eta baso interesa" kategorien ordean "J24 Nekazaritza eta abeltzaintza interesa-Landa paisaia" jartzeko. Udalak alegazioa onetsi zuen eta lurzati guztia J24 kategorian kalifikatu zuen.

Ingurumen organoaren oharrak: Egokitzen jo da lurzati gehienarentzat kalifikazioa aldatzea, salbuetsiz arte unadak dituzten eremuak (*Quercus ilex*). Horien kalifikazioa "J13 babes bereziko zona- Baso balioa" izan behar da.

– Trespondeko Administrazio Batzarrak askotariko gaiei buruzko 10 puntu zituen alegazio bat aurkeztu zuen. Horien artean ingurumenari lotutakoak nabarmendu behar dira:

Industria kalifikazioa duten eta aurretiaz Ekonor eta CTL enpresek okupatu zituzten lursailei kalifikazio hori kendu eta zona berdearena jartzea eskatu zen. Udalak erantzun zuen proposamen horren kostu ekonomikoa kontuan hartuta, HAPOn proposamena izan dela instalazioak berriz ere erabiltzea behartzea hurbileko etxebizitzekin bateragarriak diren erabilerekin, eta lehen sektoreko jardueren lotutakoekin.

Batzarrak alegatu zuen HAPOk ez dituela modu egokian baloratzen Trespondeko meatzaritza jarduketak sortzen dituen ingurumen eta paisaia efektuak, ezta ere lurraldearekin eta hiriguneekin lotuta daudenak. Udalak erantzun zuen HAPOn harrobia baloratuko dela dagokionarekin lotuta, izan ere, baimendutako eta sektore ikuspegitik araututako jarduera bat da. Udalak bakarrik espazio publikoa kudeatu eta trafikoa erregulatu behar du. Arazo horiek meatzaritza jardueraren proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedurari dagozkio.

Natura 2000 Sareko "Zadorra ibaia" babestutako espazio naturalari dagokionez, HAPO berriak ibai ibilgu hori, ibaiertza, eta baso galeriak babesteko neurriak aurreikusi behar dituela uste da, eta eraginpeko instituzioekin akordioak ezarri behar dira uholdeen ondorioak arintzeko, ibai ekosistema berreskuratzeko, paisaia inpaktuak saihesteko eta jabari publiko hidraulikoko

5 metroak berreskuratzeko. Udalak arrazoitu zuen bakar-bakarrik adierazpenaren araudia eta Zadorra Ibaiaren KBEarentzat onetsitako zuzentarauak eta kudeaketa neurriak kontuan hartu ditzakeela.

Alegatutako gainerako kontuak baloratu eta erantzun zituen udalak baita ere, eta eskatzen zutena zen hirigintza garapenak bakarrik Langraiz Oka udalerrian ez zentralizatzeko, finkatutako hiri lurzoruan bideen zabalera 7 metrora handitzeko, Trespondeko 616. finka plaza publiko ez bihurtzeko, Azpeako errota mantentzeko, etxebizitzaren tipologia babestu eta bateratzeko, labearen antzinako harrobia Interpretazio Zentro posible gisa erabiltzeko, eta Trespondeko udaletxe zaharra erabilera publikorako eskuratzeko proposamena egin zuten.

– Langraiz Okako Administrazio Batzarrak hirigunean aurreikusitako hiru kaleko sarbideei buruzko kontu bat alegatu zuen, eta halaber jakinarazi zuen Langraizko egungo saneamendu sareak ez duela onartzen higiezin berriak sartzeko, garapen berrietan kontuan hartu dadin. Udalak saneamenduari buruz erantzun zuen aztertuko dutela ea sarera konektatzeko obrek egungo sarea hobetzea eskatzen duten, eta nola banatu behar diren gastuak hainbat kudeaketa arloren artean.

– Hormigones y Minas SA enpresak alegazio idazki luzea entregatu zuen eta bertan eskatu zuen C sekzioko “Nafarroa txikia” meatzaritza emakidaren titular gisa, harrobi horren handitzea HAPOn sartzeko. Horretarako hainbat agiri aurkeztu zituzten. Udalak erantzun luzea eman zuen, eta bertan ondorioztatu zen HAPOn sartu behar direla baimendutako erauzketa jarduerak (harrobiak). Baina, ez zuen zehaztu sartzeko hori etorkizuneko handitzeetan egin behar denik, izan ere, horiek garapen plangintzaren espediente bat izapidetzeko beharretik egin dira (plan berezia). Horrekin lotuta adierazi zuen harrobiko jabetzak behin betiko onespeneraren araudia argitaratu eta hurrengo egunean handitzearen izapidetzea hasteko aukera duela, eta horixe egin beharko lukeela baita ere HAPOn sartuta egongo balitz. Udalak esan zuen alegazioa onetsi zuela, beste batzuen artean gaur egun dokumentazio grafikoan baimendutako erauzketa jarduerak sartzeari dagokionez.

Ingurumen organoaren oharrak: Udalak emandako erantzuna positiboki baloratu zen. Alderdi hori modu xeheagoan aztertu da txosten honen hurrengo faseetan.

– “Explotaciones de Canteras Alavesas SA – ECALSA” enpresak eskatu zuen HAPOn berriaz jasotzeko “Azkorrigana” meatzaritza ustiapeneren emakidaren mugapen fisikoa eta indarreko ustiapen proiektuaren eremua. Udalak erantzun zuen alegazioa partzialki onetsi zuela gaur egun dokumentazio grafikoan baimendutako erauzketa jarduerak sartzeari dagokionez.

Hirugarrenik, jendaurrean jartzeko izapideari dagokionez eta eraginpeko administrazio publikoari eta interesdunei egindako kontsulten arloan guztira 13 alegazio jaso ziren. Oso laburki jaso dira ingurumen eragin handiena dutenak, eta ingurumen organo honek horiei buruz egindako oharrak hauek dira: udalak sektore alegazioak kontuan hartu behar ditu eta dagozkion aldaketak HAPOn sartu behar ditu, arreta berezia jarritz alor hidraulikoan eskudunak diren organoek ezarritako muga eta zuzentarauetan. Horrekin lotuta, egokitzeak jotzen da HAPOk arreta bereziarekin aztertzea bere jarduketek eta udalaz gaindiko etorkizunekoek uholdeak sortzeko duten arriskua, eta horrek Zadorra ibaiaren Ibaiko KBEaren babestutako espazio naturalean eta herriguneetan izan ditzakeen efektuak.

– Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntz Politika Sailaren Euskal Kultura Ondarearen Zentroak, zenbait gomendio emateaz gain, modu loteslean eskatzen du HAPOn “Arkitektura ondarearen katalogoa (B agiria)” berrikusteko honekin lotuta:

- B.1.2. Metodologia apartatuan: inbentarioko ondasunak deklaraturako ondasun gisa sartu behar dira.

- Testua aldatu behar da ustezko zona arkeologikoak beraien izenera eta dagokien araudira egokitzeko (Kultura ondarearen 7/1990 Legearen 49. artikulua).

– Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat entregatu zuen, eta bertan nagusiki aipatu zuen beharrezkoa dela HAPO Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta basoko lurralde plan sektorialera egokitzea, balio estrategiko handiko lurzorua babes-  
tea, lurzoru urbanizaezinaren kategoriak zuzen definitzea, proposatutako hazkunde aukerak  
nekazaritza ingurunean sortuko duten inpaktua baloratzea, eta hain garrantzitsuak ez diren  
beste kontu batzuk.

– URA Uraren Euskal Agentziak txosten bat bidali zuen, eta bere eskumeneoak diren zen-  
bait alderdiri buruzko oharra eman eta gero, hauxe ondorioztatu zuen:

- Uholde arriskuari dagokionez, AOP-T1 "Tresponde" HAPOn jasotako garapenetatik kendu  
beharko da. Halaber, eskatu zuen Ebroko Konfederazio Hidrografikoak jada egikarituta dagoen  
Trespondeko AOP-T1 tokiko sistema legeztauzteko.

- AOP-N4 "El Calero" eremuan ez dira soto solairuak egin behar, eta beraz, HAPOn horri  
buruz jasota dauden proposamenak ezabatu beharko dira.

- AOP-12 "Los Llanos II" eremuaren antolamenduak errespetatu egin beharko du erreka-  
toen trazadura, eta ez du horien zortasun eremua okupatu beharko eta ibaiertzetako landaredia  
errespetatu beharko du baita ere.

- AOP-N1 "La Razueta", AOP-N2 "Milagros Gonzalez", AOP-N3 "Errota" eta AOP-SG3 "Ibai  
parkea" eremuetan (lurpeko osagai handia dutenak), proposatutako pasabidearen tamaina  
zuzena izateko ez ohiko uholdeen aurreko justifikazio hidraulikoa aurkeztu beharko da.

- AOP-N1 "La Razueta", AOP-N2 "Milagros Gonzalez" eta AOP-N3 "Errota" eremuetan ber-  
matu beharko da ibai ekosistema hobetzen dela, eta gutxienez zortasuneko 5 metrotan ibilguten  
alboko areetako ingurumen berreskurapena sustatu beharko da.

- Aipatu zuten aurreikusitako zenbait hazkunde eremu garatu ahal izango direla ez ohiko  
uholdeen aurreko arriskuari lotutako mugekin, eta polizia zonan egingo diren obrek Ebroko  
Konfederazio Hidrografikoaren baimena beharko dutela. Urbanizazio, industrialde eta azpiegi-  
tura berriek drainatze sistema jasagarriak izan beharko dituzte.

- Beharrezkoa da HAPOren dokumentazioan eraikita dauden sareak eta azpiegiturak eta  
aurreikusitako berriak sartzera eta eskari berrien estimazioa egitea baita ere.

- Langraizko eskualdeko HUAren aurreikusitako konexioak egiteko aurrera egin beharko da, eta  
erakunde kudeatzaileak txosten bat egin beharko du ziurtatzeko konexio horiek bateragarriak  
direla egungo saneamendu irtenbidearekin.

– Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, URAren ondorioak berrestez eta zenbait gomendio  
eta aurreikuspen emateaz gain, zenbait kontu zehaztu eta gehitu zituen eremu jakin batzuei  
buruz, eta orokorrean hauxe esan zuen:

- Lehentasuneko fluxu zonaren eta Trespondeko eta Billodako urez gainezka egin dezakeen  
zonaren barnean geratuko liratekeen Iruña Okako lurzoruetan Jabari publiko hidraulikoaren  
erregelamenduko 9.bis, 9.ter eta 14. Bis artikuluetan jasotako mugak eta aurreikusitako erabi-  
lerak beteko dira.

- Zortasun zonaren eta/edo polizia zonaren barneko hiri lurzoru finkatua eta ez finkatua  
jabari publikoa ezinbestekoa, enbargaezina eta besterenezina izango da.

- Sektorizatutako lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezinean jabari publiko hidrau-  
likoa errespetatu eta proposatutako eremuetatik kanpo utzi beharko da.

- Eskari hidriko berriei dagokionez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aldeko iritzia eman  
zuen HAPOko jarduketan inguruan.

- HAPOn aurreikusitako eremuak garatzean arreta berezia jarriko zaie "Akuiferoen zurgarritasun  
handia edo oso handia" duten zonetan aurreikusitako garapenei eta/edo iturburuak dituzte-  
nei. Horretarako, lurpeko baliabide hidrikoen kalitatea mantentzeko neurriak ezarri beharko dira.

### 3. Aurreikusitako eragin esanguratsuak eta ingurumen integrazioarako neurriak aztertzea

Iruña Okako HAPOTik eratorritzen diren eragin nabarmenenak IAEren 5. kapituluaren, "Inpaktuen identifikazioa, ezaugarriak eta balorazioa" izenekoan, deskribatzen dira. Oro har, Iruña Okako HAPOn aplikazioak sorraraz ditzakeen eragin nabarmenen aurreikuspenaren azterketa era egokian egin dela uste dugu, zeren eta honako ingurumen aldagai hauek, kasu gehienetan, banan-banan eta behar besteko sakontasunez aztertu baitira:

- Airearen kalitatea.
- Nekazaritza lurzorua eta erabilerak.
- Ingurune hidrikoa.
- Flora eta fauna.
- Intereseko naturaguneak.
- Kultura ondarea.
- Biztanleria.
- Lurraldeko elementu estrategikoak.

Halaber, IAEn proposatutako garapen eremuen banakako ebaluazioa egiten da eta nagusiki eraginak jasan ditzaketen elementu hauek lantzen ditu:

- Natura 2000 sarea: "Zadorra ibaia" KBEa.
- Katalogatutako flora eta fauna espezieen onetsitako kudeaketa planen eremuak.
- Europar Batasunaren Intereseko Habitata, bereziki lehentasunezkoak.
- Intereseko landaredia, bereziki tokiko espezieen zuhaitz formazioak eta balio bereziko sastrakak eta larreak.
- Kultura ondarea: balio arkeologiko eta arkitektonikoak.
- Sare hidrografikoa.
- Nekazaritza balio handiko lurzoruen okupazioa, erreferentziatza hartuz Nekazaritza eta baso LPSn mugatutako balio estrategiko handiko lurzorua eta landa paisaia.

Horrez gain, ingurumen inpaktu akustikoaren azterlaneko ondorioetan oinarritutako eragin akustikoak ere sartu dira. Gainera, babestutako hornidura harguneei buruz egindako ingurumen arriskuen, uholde arriskuaren (T=500 urte), akuiferoen kalteberatasunaren, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen eta ehuneko 20 baino gehiagoko lursail aldapen analisi bat ere jasotzen da.

Aurrekoa gorabehera, eta txosten honen hurrengo apartatuetan jasota dagoen moduan, paisaia osagaia ez da egokitasunez kontuan hartu, ezta ere konektibitate ekologikoari dagokiona HAPOn proposatutako zenbait garapen eta hazkunderen analisi xehea egiteko.

IAEn jasotako ingurumen integrazioko neurriak, zehazki "Ingurumenean sortzen diren ondorio negatiboak prebenitu, murriztu eta konpentsatzeko neurrien proposamenari buruzko" 6. kapituluaren jasotakoak, ingurumen integrazio neurri zehatzak eta espezifikoak dira bai diseinu, bai azterketa fasean, baita ere eta hirigintza garapenen obren egikaritze aldietan ere, eta ingurumen faktoreei buruzkoak dira eta horietara eta ingurumenean sortzen diren aldaketetara bideratuta daude (atmosfera, ura, geologia eta geomorfologia, lurzorua, baliabide naturalen erabilera, landaredia eta habitat naturalak, fauna, paisaia, biztanleria eta demografia eta kultura ondarea).

Ingurumen integrazioko neurri horiek HAPOn behin betiko onespeneko hirigintza dokumentuan sartu behar dira txosten honetako hurrengo apartatuko zuzentarau eta oharrekin batera.

#### 4. Birdefinitu edo ezabatu beharko liratekeen HAPOko jarduketan zehaztapena. Ingurumen baldintzak

Arestian aipatu dugun Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ingurumen adierazpen estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak HAPOn sartu beharko dira. Horrekin lotuta, HAPOren araudiak apartatu honetan jasotzen diren ingurumen baldintzak gehitu beharko ditu.

Halaber, IAEko "Ingurumenean sortzen diren ondorio negatiboak prebenitu, murriztu eta konpentsatzeko neurrien proposamena" izeneko 6. kapituluaren jasotako ingurumen integrazioko neurriak HAPOren behin betiko onespenerako hirigintza dokumentuan jasoko dira.

Orokorrean, ingurumen adierazpen estrategiko honen ondorioen arabera, ez da beharrezkoa HAPOko jarduketak ezabatzea, baina, kasuren batean eskatu dute zenbait eremu berriz ere definitzeko eta ingurumen elementuen babes kontuan hartzeko. HAPOk ingurumen organoak txosten honetako "jendaurrean jartzeko prozesuaren eta egindako kontsulten emaitzak" izeneko apartatuan adierazitako oharrak kontuan hartzeaz gain, beharrezkoa da txosten honetako aurreko apartatuetan aipatu edo aurreratu diren zenbait alderdi berriz ere planteatu eta berrikustea. Laburbilduz, hauek:

1. Irismeneko dokumentuan jaso zen bezala, J10 "Babes bereziko zona: Balio naturala" J10 kategorian sartu behar dira ondo kontserbatutako tokiko basoak dituzten lursailen azalerak (bereziki, Badaiaiko mendilerroaren hegoaldeko hegaletan dauden garrigak eta Gasteizko Mendietako erkameztiak), kontserbazio egoera onean dauden ibai multzoak (horien artean sartu behar da Zadorra ibaiaren kontserbazio bereziko zona), 92/43/CE Zuzentarauak katalogatutako habitata, harkaitz zonak eta larre harritarrak, eta orokorrean, ekologiaren, kulturaren, paisaiaren edo horien guztien ikuspegitik baliotsuak diren elementu guztiak. Beraz, xehetasun eta zorroztasunez berrikusi eta zuzendu behar da lurzoru urbanizaezinean egindako zonifikazioa edo kategorizazioa.

Plan orokorraren araudiak kategoriatan horretan debekatu egin behar ditu berariaz (J10 "Babes bereziko zona: Balio naturala") hirigintza eta eraikuntza erabilera guztiak eta fisiografia naturala aldatzen duten jarduketak guztiak, baldin eta eremua babesteari edo kudeatzeari, ikerketari, ingurumen hezkuntzari edo dibulgazio zientifikoari lotuta ez badaude. Ohar hori hirigintza araudiko dagokion apartatuan jaso beharko da. Iruña Oka udalerraren kasuan, bertako baldintza orografiko eta sozioekonomiko bereziak kontuan hartuta, eremu horietako eraikuntza erabilera onargarri bakar gisa zuzenean abeltzaintza erabilerari lotutako bordak eta babeslekuak onartzen ditugu, baina, ez daude baimenduta bestelako eraikinak, adibidez, abeltzaintza nabeak. Horiek ez dute baimenik jasoko babes bereziko lurzoru horietan, lurzoruon balio naturala dela-eta.

J13 "Baso balioarengatik babes bereziko eremua" kategorian egungo ekoizpen izaerako baso birpopulazteak dituzten zonak barne hartu behar dira, baita ere erabilera bokazioarengatik (aldapak, higadura arriskua, arroken babes, eta abar.) baso erabilerarako orientabide argiak dituztenak. Urratutako onura publikoko mendiak eta eraberritzean dauden harrobiek okupatutako areak baso area gisa kalifikatu behar dira.

2. A-1 autobideko hegoaldean eta "Los Llanos" industrialdearen parean kokatzea proposatu den 44 hektareako industrialde berriari dagokionez, errepide horren eta AHTren trazaduraren arteko espazioan nekazaritza lursailak, Gasteizko Mendietatik jaisten den erreka zati handi bat, izenik gabeko beste erreka zati bat, eta bertako ibaiertzeko landaredia ukitzen dira. Industria eremuaren hirigintza antolamenduak bermatu behar du erreka zati zehaztutako landaredia mantendu eta indartu dela, eta 100 urteko errepikatze denborako uholdearen okupazioa saihestu da.

Zona horretan aurreikusitako abiadura handiko trenaren trazadurak (informazio azterlan mailan definitutako aldeko ingurumen inpaktuaren adierazpenarekin) aldatu egiten ditu lurralde antolamendua eta etorkizunean bi errepide azpiegitura handiren arteko (trena eta autobidea)

espazio interstizialean kokatutako inguru horren ezaugarriak. Edonola ere, AHTren trazadurak (dagokion eraikuntza proiektuaren arabera eraikitzen bada) ingurumen arrazoiak direla-eta muga bat ezarri behar du lurralde antolamenduan. Gure ustez, ez da gainditu behar trenbide trazadura horren hegoaldean planteatu daitezkeen garapen industrial berriekin. Halaber, ekialderago, Gasteizerako norabidean, gaur egun de facto markatzen dute A-1 eta N-102 errepideek.

3. Subillabide II industrialdeak (53 hektarea) Subillabideko egungo industrialdea eta Jundizkoa batzeko egindako planteamenduarekin (paraleloan lotuta trenbide plataforma intermodalari) Jundizko mendixka isolatuko luke eta industrialdeen eta A-1 autobidearen artean guttiz sartuko luke, Zadorra ibaiko KBErekin konektatzea oztopatuz eta bereziki Gasteizko mendietako eta Tuio eta Badaia mendilerroetako inguru naturalen arteko konektibitate ekologikoa eragotziz. Horrekin lotuta, "sine qua non" betekizuna da Jundizko mendixkaren, Zadorra ibaiaren eta Gasteizko Mendien eta Tuio eta Badaia mendilerroen arteko konektibitate ekologikoa lortzea. Horretarako, egindako plangintza berrikusi beharko da.

Kontuan hartu behar da eremu hori "Burgos-Gasteiz abiadura handiko linearen" proiektuaren eraginpean dagoela, eta beraz, zona bakoitzean hainbat proiektu eta plan metatu dira eta beraien artean bateratu behar dira, aldi berean bermatuz Jundizko mendixkaren eta Zadorra ibaiko KBEaren arteko iragazkortasuna eta prozesu ekologikoak mantentzen direla.

Zehazki, abiadura handiko tren proiektu horrekin lotuta, kontuan hartu behar da Ingurumen kalitatearen eta ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko ekainaren 11ko ebazpenaren bidez ingurumen inpaktuaren adierazpena eman zela eta horren bidez bukatu zela proiektuaren ingurumen inpaktuaren prozedura. Hauxe adierazi zen:

– Arabako Foru Aldundiak proposatu du proiektatutako lubetaren ordez biaduktu txiki bat jartzea A-3302 errepidearekin gurutzatzen den tokian, izan ere, horrek hobetu egingo du Zadorra Ibaia KBEaren eta Jundizko mendixkaren arteko konektibitatea. Gainera, Gasteizko Udalak bere txostenean adierazi du egokia dela fauna konektibitatea hobetzeko askotariko ODTetan kokatutako pasabideen neurriak handitzea.

Eta ingurumen inpaktuaren adierazpeneko baldintzen artean hauek daude:

– 37+500 kp: biaduktu bat proiektatuko da A-3302 errepidea igarotzeko aurreikusitako esparruaren ordez, edo esparru hori egokituko da fauna igarotzeko. Zabalera egokiena 15 metrokoa litzateke.

Egiaz, A-3302 errepidearekin bat egiten duen tarte hori ahula da ingurumenaren arloan, eta bertan iragazkortasun neurriak ezarri behar dira. Neurri horiek errepide eta trenbide proiektuetan eta hirigintza eta industria planetan jaso behar dira. Horrekin lotuta eta kontuan hartuz egungo Subillabide industrialdeko ipar-ekialdean, A-3302 errepide ondoko eremuan, gutxi gorabehera 30 metroko zabalera duen zona berde bat dagoela, Subillabide II industrialdeko plangintzak, hego-mendebaldeko aldean, A-3302 errepidearen ondoko eremuan, luzera guztian gutxienez 30 metroko zona bat izan behar du. Zona horretan ingurumen eraberritzeak eta birlanaketak egin beharko dira igarobide ekologiko bat sortzeko eta fauna espezieak banatu eta mugitzea errazteko. HAPOn planoan eta araudian neurri hori ezartzeko betebeharra jaso beharko da. Horrez gain, proiektatu den Subillabide II industrialdeko zona berde zentrolean ingurumen eraberritzeak eta birlanaketak egiteko eskatu da, modu horretan fauna espezieak hedatu eta mugitzea errazteko igarobide ekologiko bat sortzeko. Iragazkortasuneko ingurumen neurri horiek ingurumen eraberritzeko proiektu batean jasoko dira eta proiektu hori onesteko aurrezko zaio ingurumen organoari. Halaber, Subillabide II industrialde barneko errepidean, proiektatutako zona berdean, trafikoa baretzeko neurriak jaso beharko ditu, adibidez, sakanguneak eta abiadura murrizteko seinaleak. Era berean, behin betiko onetsiko den HAPOn ingurumen neurri horiek ezartzeko betebeharra jasoko da.





4. Aire zabaleko harrobiak ustiatzeari dagokionez, ingurumen organo honek egokia eta arrazoizkoa dela uste du udalak egindako plangintza. Bertan adierazten du HAPOn planoetan bakar-bakarrik indarreko ustiapen proiektuen egungo eremuak marraztuko dituela, eta ez dagokio HAPOrri harrobiak handitzeko irtenbideak aztertu eta kontuan hartzea, izan ere, handitze horiek egiteko garapeneko plangintza espediente bat izapidetu beharko da, adibidez plan berezi bat edo kasu bakoitzean dagokion plana edo hirigintza izapidetzea. Plan hau izapidetzen denean beharrezko xehetasun mailarekin analizatuko dira ingurumen eraginak dagokion ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren bitartez, eta hala badagokio, harrobia handitzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren bidez baita ere.

5. Ingurumen adierazpen estrategiko honen aurreko apartatuetan aipatu den bezala, HAPOn "Igarobide ekologikoak" gaineratutako baldintza jaso beharko da, eta horri dagokionez, Arabako Foru Aldundiko igarobide ekologikoen sarean zehaztu eta xedatutakoa beteko da (Arabako Lurralde Historikoko ekologia eta paisaia konektibitatearen estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005). Badaia mendilerroa eta Gasteizko Mendien mendebaldeko zona, Iruña Okako udal mugartearen barnean, katalogatuta daude zeregin handia egiten dutelako Arabako lurralde historikoko ekologia eta paisaia estrategian eta Euskadiko igarobide ekologikoen sarean konexio ekologikoko mugimenduak errazten dituztelako (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren Saila. 2005). Horregatik, udalerriko eremuko konektibitate ekologikoa eta lurraldearekin duen harremana HAPOn bereziki tratatu behar dira eta gaineratutako baldintzak izan behar dira.

6. HAPOn paisaia berezien eta bikainen gaineratutako baldintza identifikatzen duen planoko hutsak eta akatsak zuzentzeko, udalerrian katalogatutako 4 paisaiak zuzen ordezkatzeko eskatzen da (12. zenbakia: Badaia mendilerroa, 21. zenbakia: Gasteizko mendiak; 37. zenbakia: Tuioko mendilerroa eta 45. zenbakia: Zadorraren erdiko ibilgua), Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoan xedatutakoarekin bat etorritik (irailaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren 829/2005 Erabakiaren bidez onetsi zena).

7. HAPOn grafikoki sistema orokor gisa edo Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen eta bizikleta bideen lurralde plan sektorialak jasotzen dituen ibilbide berdeen eta bizikleta bideen oinezkoen eta txirrindularien komunikazioen gaineratutako baldintza gisa jaso beharko da ([www.pts-vciv.com](http://www.pts-vciv.com)); onesteko fasean oso aurreratu dagoen agiria da. Aipatutako LPSk Iruña Oka udalerrian 5. bizikleta bidea jasotzen du: "Gasteiz - Langraiz Oka", eta 13. ibilbide berdeak: "GR-25 Arabako Lautadari bira", 16. zenbakiduna "GR-282 Artzaintza bidea" eta 23. zenbakiduna "Zadorrako ibilbide berdea". HAPOn araudian berariaz jaso beharko da eremu horietan nahitaez eta modu loteslean aplikatu behar dela Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen 1/2012 Foru Araua.

8. AOP-SG3 "Ibai parkea" antolamendu xehatuko eremuari dagokionez (espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatuta dago eta Langraiz herriguneko iparraldetik igarotzen den "La Torca" errekastoaren ibilgu ondoko lursailak barne hartzen ditu), HAPOk zehazten du helburua inguru natural pribilegiatu bat babestea eta herrigune ondoko naturaz gozatzeko sarbidea sortzea dela. Udalak egindako plangintza egokitzen jotzen da, baina, kontuan hartuta eremu jakin horretan ez direla zehaztu ingurumen kontserbazio eta zaharberritze jarduketak, egokia litzateke HAPOn zehaztea eremu horretan egingo diren jarduketak ibai espazioaren balio ekologikoak kontserbatzeko eta ibaiertzeko eremuaren ingurumen hobekuntzarako izan behar direla. Hala ere, aurreko guztia antolatutako erabilera publiko batekin bateratu beharko da eta horrek ez du gairik beharko hartzeko karga gaitasuna, eta beraz, ez du ondorio negatiborik izan beharko Langraiz Okako herrigunearen barnean kokatutako espazio natural berezi horretan.

9. Billodan eta Olabarrin bizitegiko hirigintza hazkundeak zehazteko hirigintza proiektuen plangintza egitean arte handienak eta ingurumen eta paisaia baliorik handienak dituztenak kontserbatzea kontuan hartu beharko da. Horrekin lotuta, urbanizazio barneko zona berdeak edo espazio libreak definitzean zehaztu unaden okupazio baliotsuenak gutxitzeko helburua ezarriko da. Hirigintza proiektu horiek ingurumen organoari entregatuko zaizkio, txostena eta balorazioa egin ditzan.

## 5. Ingurumen jarraipeneko plana

IAEren 7. kapituluaren "Berrikuspen programa" bat proposatu da. Uste dugu ingurumen zaintzako programa hori HAPOren behin betiko onespeneraren hirigintza agirian sartu behar dela.

Horrengatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hauxe:

### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iruña Okako (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ematea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betez, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ingurumen arloko ebazpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen adierazpen estrategikoak indarra galduko du ALHAOn argitaratu eta bi urteko epean erreferentziako HAPO behin betiko onetsi ez bada, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 27.1 artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 74.4 artikulua arabera.

Laugarrena. Agintzea ingurumen adierazpen estrategiko hau ALHAOn argitaratzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ekainaren 6an

*Ingurumen eta Hirigintza diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

*NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA*